

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREKIN
SINATUTAKO EKONOMIA ITUNEKO
ARBITRAJE BATZORDEA****Gatazka:** 5/2008**Administrazio interesatuak:**

Bizkaiko Foru Aldundia

Estatuko Administrazioa

Xedea: BEZa: Eragiketen bolumena. Egoitza fiskala**Beste gai batzuk:** Gatazka onartzea: Arbitraje Batzordea eratu aurreko gatazkek: Aurkezpena garaiz kanpo egitea**R4/2009 Ebazpena****5/2008 Espedientea**

Vitoria-Gasteizen, 2009ko martxoaren 6an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin sinatutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna lehendakari eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du Bizkaiko Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren aurka egindako gatazkaren gainean, hain zuzen, (Erakundea) sozietateak NIF ANNNNNNNN 2001. ekitaldian zuen zerga-egoitzari buruz. Arbitraje Batzorde honetan 5/2008 espediente zenbakiarekin izapidetutako erabakia da hau.

I. AURREKARIAK

1. 2008ko martxoaren 14an egin eta egun horretan bertan erregistratu zen idazkiaren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiak organoa eratu aurretik sortu ziren gatazkei buruzko hainbat espediente bidali zizkion Arbitraje Batzordeari, besteak beste, ebazpen honen helburu dena.
2. (Erakundeak), (Hemendik aurrera “sozietateak”) 2001eko BEZaren aitorten likidazioei dagokiona itzultzeko egindako eskaerek eragin zuten aztergai dugun gatazka. Zerga Administrazioarako Agentzia Estatalean (aurrerantzean, ZAAE) aurkeztu ziren, aipatutako urtearen hirugarren hiruhilekotik aurrera, 34.000.190,92

euroko zenbatekoan.

Itzultzeko eskaera horiek aurkeztu aurretik, sozietateak idazki bat aurkeztu zion ZAAEko Zerga Kudeaketarako Bulegoari, 2001eko irailaren 28an. Bertan, 036 ereduko altaren jakinarazpenaren berri emateaz gain, hipermerkatuetako txikizkako merkataritza jardueri buruzko Ekonomia Jardueren gaineko Zergari zegozkion altak jakinarazi zizkion. Geroago, 2001eko azaroaren 16an, sozietateak idazki bat aurkeztu zion ZAAEri, enpresa handiko izaera zuela jakinaraziz. Bi idazki horietan, BEZaren Legearen 121. artikulua aplika zekiokela azaldu zuen sozietateak, eta, beraz, 2001ean 1.000 milioi pezetatik gorako eragiketa bolumena izan zuela.

Zerga Administrazioarako Agentzia Estatalaren Ikuskaritzak aztertu zituen BEZa itzultzeko eginiko eskaerak, eta 2002ko ekainaren 23an egindako txostenean bildu zituen emaitzak. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Zerga Agentziaren Ordezkaritza Nagusiak espedientearen berri izan ondoren, bere burua eskumenik gabetzat jotzea proposatu zion aktuarioak hari, itzultzeko eskaeraz arduratu ez zedin. Sozietate interesdunak alegazioak aurkeztuko zituela kontuan hartuta – 2006ko irailaren 26an jarri zituen–, eta 2002ko irailaren 22an, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Lurralde eta Erkidegoetako Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiaren idazkariak gai horri buruz bidalitako txostena aintzat hartuz, aipatutako aktuarioak zera proposatu zuen 2002ko urriaren 10ean: Bizkaiko Foru Aldundiari eta Enpresa Handiak Kudeatzeko Unitateari txostenaren berri ematea, dagozkion ondorioak izan ditzan. Izan ere, bere ustez, Unitate horrek dauka eskatutako itzultzea ukatzeko eskumena, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasunak baitauka aipatutako eskaera aztertzeko, eta, hala badagokio, dirua itzultzeko eskumena. Azkenik, Zerga Administrazioarako Agentzia Estatalaren Euskal Autonomia Erkidegoaren Ordezkaritza Nagusiaren Enpresa Handiak Kudeatzeko Unitateak (EHKU), 34.000.190,92 euroko likidazioa beharrian, 0 euroko behin-behineko likidazioa gauzatzea erabaki zuen, horretarako eskumenik ez zuelako. Izan ere, 2001eko ekitaldian, zergadunaren helbidea Bizkaian zegoen, eta 2000ko ekitaldian 25.000.000 pezetako eragiketa bolumena izan zuen. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasunean aurkeztu behar zituen 2001eko BEZari zegozkion aitorpen guztiak eta, ondorioz, itzultzeko eskaera berari egin behar zitzaion. 2002ko urriaren 28an, sozietate interesdunak akordioaren berri izan

zuen, eta ordutik hasita, hamabost eguneko epea izan zuen berraztertze-errekurtsoa edo administrazioarekiko diru-erreklamazioa aurkez zezan. Bada, berraztertze-errekurtsoa jarri zuen 2002ko azaroaren 13an, 2002ko abenduaren 12an gaitzetsi egin zena. Gaitzespen horren aurka, administrazioarekiko diru-erreklamazioa ipini zuen 2003ko urtarrilaren 3an, eta azken horrek administrazioaren isiltasunaren bitartez gaitzespena jaso ondoren, gorako errekurtsoa jarri zuen 2004ko otsailaren 12an, 2005eko apirilaren 6an onartezintzat jo zena.

3. Aldi berean, 2003ko ekainaren 12an, zerga-egoitzaren ofiziozko zuzenketa espedienteak egiteari ekin zion Bizkaiko Foru Aldundiak. Espedienteak sozietatearen helbidea Bizkaian kokatuta ez zegoela ondorioztatu zuen, eta horren berri eman zitzaion Estatuko Zerga Agentziari, 2003ko uztailaren 23an. Espedienteari erantzunez, Agentziak txosten berri bat egin zuen 2003ko azaroaren 11n. Bertan, ondorioztatu zuen sozietatearen zerga-egoitza (Bizkaiko udalerrian) bere sozietatearen helbidearekin bat zetorrela, hain zuzen, administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza kokatuta dagoen tokiarekin. Egoera ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiak idazki bat zuzendu zion Ogasun Ministerioari, sozietatearen zerga-egoitzari buruz hartutako erabakiarekin ados ez zegoela zehaztuz bertan. Maiatzaren 23an 12/2002 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 66. artikuluan aurreikusitakoak ondorioak izan zitzan aurkeztu zuen idazki hori, eta aipatutako Itunaren 43. artikuluetako seigarren eta bederatzigarren ataletan, hurrenez hurren, oinarritu zen horretarako: "Zergapekoen egoitza zein den erabakitzeko orduan administrazioen artean auziak sortzen baldin badira, Arbitraje Batzordeak konponduko ditu arazoak, zergapekoek diotena entzun ondoren. Arbitraje Batzorde hori ekonomia-itun honen III. kapituluko 3, atalean dago araututa", eta "Administrazio interesatuetatik edozeinek zergadunaren egoitza aldaketa eragin ahal izango du. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta bi hilabeteko epea emango dio egoitza aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko", beraz, "Besteak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio", baina "Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahalko da artikuluko sei paragrafoan azaldutako eran".

4. Bizkaiko Foru Aldundiak gatazkaren nondik norakoak aurkezteko egindako txostenean dioenez, 2001. urtera arte, sozietateak negozioetarako lokal bat alokatzeari ekin zion, urteko fakturazio-bolumena urria zuena. Lokal horren sozietatearen helbidea eta zerga-egoitza (2 udalerrian) kokaturik zegoen. Haatik, 2001eko erdialdean, sozietateak bost hipermerkatu erosi zituen, lurralde erkidean kokaturik guztiak (Tarrasa, Algeciras, San Cugat, Murtzia eta Cartagena), eta horrek zerga-egoitzaren kokapena aldatzea ekarri zuen, izan ere, ordutik aurrera ezin daiteke kontsideratu sozietatearen administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gunen nagusia bertan dagoenik. Gainera, sorospidez, sozietatearen ibilgetuaren baliorik handiena ez dago Bizkaiko Lurralde Historikoan. Horregatik guztiagatik, foru administrazioaren eskuetan dauden elementu guztiak aztertu ondoren, sozietatearen zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dagoela ondorioztatu zuen.

Funtsean, ondoko baieztapenetan oinarritu da horretarako:

- Araudi juridikoan ez da inon zehazten Balio Erantsiaren Gaineko Zerga ordaindu behar duen pertsona juridikoaren zerga-egoitza sozietatearen administratzaileen zerga-egoitzaren kokapenaren menpe dagoenik, ezta sozietate horrek akzioen bitartez kontrolatzen duen enpresa taldearen egoitzaren kokapenaren menpe dagoenik ere. Nabarmendu zuenez, ez dira nahasi behar indarrean dagoen araudia eta duela ia hamar urte indargabetutako hainbat arauk ezarri zituzten irizpide jakinak, Zerga Administrazioari sozietate baten benetako helbidea kokatzen laguntzeko egin zirenak. Gainera, irizpide horien aurretik, sozietatearen errealitatean oinarrituz lortutako datuek dute lehentasuna.
- 2001. urtean, sozietateak ez zuen behar bezalako giza baliabideez eta baliabide materialez hornitutako erakunderik haren antolakuntzarekin lotutako erabakiak hartzeko.
- Sozietatearen ibilgetu osoa lurralde erkidean dago.
- Erakundearen langile guztiak lurralde erkidean kokatutako lantokietan aritzen dira, beraz, sozietateak lurralde erkidean kokatutako merkataritza guneean

gauzatzen ditu langileen bitartez garatutako administrazio-kudeaketa zeregin guztiak.

– Administrazio-kudeaketaren alorreko jarduera jakin batzuk egiteko, sozietateak bere enpresa taldeko (2 erakundea) eta (3 erakundea) azpikontratatu ditu. Azken horiek beren instalazioetan aritzen dira lanean, beraz, ezin daitezke sozietatearen barruko jardueratzat hartu, sozietatea ez baita horiek gauzatzen dituen.

– Sozietatea kide den enpresa taldea, erabakiak hartzeko oinarrizko bi maila ezberdinez eraturik dago, negozioen zuzendaritza kontzeptua osatzen duten mailatzat har daitezkeenak: batetik, (Taldearen) Zuzendaritza Batzordean eta Hipermerkatuen Zuzendaritzan dagoena; enpresa talde osoaren negozioa bideratzeko oinarrizko estrategia irizpideak ezartzen ditu. Bestetik, merkataritza gune bakoitzaren erabakiak ezartzen dituena. Merkataritza gune bakoitzeko kudeatzaileen ardura da erabakia horiek hartzea.

– Elementu horiek guztiak nahikoak ez badira administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gune nagusia kokaturik dagoen tokia zehazteko, ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lurraldea hartuko da irizpidetzat, eta hori, zalantzarik gabe, lurralde erkidean dago.

5. ZAEEK hasierako bi arrazoi eman ditu gatazka onartu ez dadin: batetik, garaiz kanpo aurkeztu zela, eta, bestetik, gatazka judiziala dagoela horren inguruan. Bigarrenik, sakoneko arrazoi desberdinak erabili ditu 2001ean erakundearen zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik zegoela baieztatzeko, garai hartan indarrean zegoen Ekonomia Itunaren 36. artikuluan xedatutakoaren arabera. Izan ere, finean, erakundeak aipatutako lurraldean zeukan administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gune nagusia, bertan sozietatearen kontratazioak egiaztatzeaz arduratu ohi zen bulegoa edo sukurtsala egoteaz gain, bertatik kontrolatzen zelako kontabilitatea, eta administratzaile zein ahaldun nahikoek hor zeukatelako beren zerga-egoitza. Hirugarrenik, eskatutako BEZa itzultzeko eskumenik ez duela deritzo, garai hartan indarrean zegoen Ekonomia Itunaren 28. artikulua hirugarren atalean xedatutakoan oinarrituz, maiatzaren 13ko

12/1981 Legearen bitartez onetsi zena. Izan ere, sozietatea aurreko urtean 500 milioi pezeta baino handiagoko eragiketa bolumen osoa izan ez zuen subjektu pasiboa da (Kasu honetan, 2000. urtean). Ondorioz, edozein kasutan dela ere, eta eragiketak edozein tokitan gauzatu izanda ere, dagokion foru aldundian ordaindu beharko ditu zergak (Kasu honetan, Bizkaian), Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik baitago (Zehazki, (Bizkaiko udalerrian)). Foru aldundiak gatazka aurkeztu aurreko fasean horretarako ahaleginak egin bazituen ere, (ez, ordea, gatazka Arbitraje Batzordera eramatea proposatu zuen idazkiarekin batera zetorren txostenean) eta erakundea horren aurka agertu bada ere, eragiketa bolumena kalkulatzeko garaian, ez da sartu 2000. urtean lurralde komunean kokatutako merkataritza guneetan izandako eragiketa bolumena, garai hartan oraindik (4 erakundea) erakundearen menpe baitzeuden horiek. Argitu behar da eragiketa horiek kontuan hartuko balira, Balio Erantsiaren Gaineko Zergari buruzko 37/1992 Legearen 121. artikuluan ezarritakoa aplikatzearen ondorioz, 500 milioi pezetako muga gaindituko litzatekeela, eta, kasu horretan, ezinezkoa litzateke Itunaren 23. artikulua 3. atala aplikatzea.

6. Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen deialdiaren ostean, indarrean zegoen Ekonomia Itunaren 64.b artikulua babespean, hein batean batera gertatu zen eta Arbitraje Batzordean bukatzekotan egon zen prozesu bat garatu zen. Izan ere, 2003ko apirilaren 4an, sozietate interesatuak argibide eskaera bat aurkeztu zion Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusiarri, azken horrek argitu ziezaion zein zen, eskumenak direla-eta, Balio Erantsiaren Gaineko Zergari zegokion eta 2001eko abenduaren 31n bere alde egindako saldoa itzultzeko betebeharra zuen zerga-administrazioa. Bizkaiko Foru Aldundiak ez zuen onartu 2003ko maiatzaren 10ean aurreko organoak egindako proposamena, bere zerbitzu teknikoek kontrako irizpidea proposatu baitzuten 2003ko ekaiaren 12an. Horren guztiaren ondorioz, gatazka Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eskuetan uztea, eta, azken horretan akordiorik lortuko ez balitz, Arbitraje Batzordeari aurkeztea erabaki zuten. Argibide eskaerari erantzutea xede zuen ebazpena 2003ko uztailaren 31n eman zen, eta Estatuko Administrazioak orduan eman zion horren berri sozietate interesatuari. Lehen esan dugun bezala, espedientean ez da ageri Arbitraje Batzordeak ez zuen jaso auzia bide horren bidez gauzatu zen aditzera eman

zuen jakinarazpenik; aitzitik, gatazka beste bide baten bitartez zabaldu zela ageri da, hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiak hasi duena.

7. 2008ko maiatzaren 12an ospatutako bileran, Arbitraje Batzordeak onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak sozietatearen zerga-egoitzaren inguruan Estatuko Administrazioaren kontra bultzatutako gatazka izapidetzea, eta, ondorioz, gatazkaren berri ematea azken horri, hilabete bateko epean arrazoibideak aurkezitzan eta frogak proposa zitzan. Espedientean jasota ageri denez, sozietateak ere gatazkaren aurkezpenaren berri izan zuen.

8. Gatazkan zeuden alderdiek espedientearen berri izan ostean, Bizkaiko Foru Aldundiak zenbait arrazoibide aurkeztu zizkion Arbitraje Batzordeari, 2008ko urriaren 22an, aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren Zerga Ikuskatzeko Zerbitzuak egindako txostenaren bitartez. Sozietate interesatuak ez zuen, ordea, arrazoibiderik aurkeztu, bere garaian, hots, 2008ko urriaren 10ean, espedientearen berri eman bazitzaion ere.

9. Jarraian, laburturik agertzen dira aldundiak aurkeztutako arrazoibideak. Lehenbizikoa, gatazka judizialaren ingurukoa da; haren ustez, ez dago horrelakorik, auzitegi ekonomiko-administratiboak ez baitira justizia auzitegiak. Bigarrena, sakoneko arrazoiei buruzkoa da; aldundiak dioenez, zerga-egoitzak jakinarazpenetarako helbidearen kokapena (Bizkaiko udalerrria) aldatu ez izanak ez du ezer esan nahi; bestetik, zerga-egoitza tokiz aldatzeko eskaera formala egin ez izanak ez du esan nahi sozietatearen zerga-egoitza Bizkaian kokaturik dagoenik, kudeaketa eta administrazio eginkizunez arduratzeko azpikontratatu dituen erakundeen zerga-egoitza lurralde horretan kokaturik egoteagatik. Izan ere, merkataritza guneetan azpikontratazioak gauzatzen dira, eta hori gutxi balitz, Madrilen kokatutako erakunde batek eskainitako zerbitzuak jasotzen dira ere bai (hain zuzen, lehen aipatu dugun eskaera izapidetzeaz arduratu zen abokatuen bulegoa). Azkenik, txostenean bat egiten du ZAAEren tesiarekin, Itunaren 28. artikuluan eragiketa bolumenaren kontzeptuari buruz aurreikusitakoaren ingurukoa. Horren arabera, ez da kontuan hartu behar BEZaren Legearen 121.1. artikuluan eta Foru Arauan ere horren parekidea den artikuluan xedaturikoa.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Lehenik eta behin, gatazka onartu ez dadin ZAAEk emandako arrazoiak aztertu behar dira. Azterketa egiteko garaian, kontuan hartuko da gatazka hau aspaldikoa dela, 2004ko urtarrilaren 24an aurkeztu baitzen. Garai hartan, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zenak, aztergai dugun bezalako eztabaidak konpontzeko Arbitraje Batzordea ezarri bazuen ere, oraindik eratu gabeko organoa zen hori, eta bere araudia onartu gabe zegoen. Gertaera horiek eman ostean, Arbitraje Batzordeak, 2008ko maiatzaren 12an ospatutako bileran, aurretik aurkeztutako eta konpontzeke zeuden gatazkak izapidetzea onartu zuen. Arbitraje Batzordeak, baina, ez zuen atzeman gatazka horiekin batera onartezintasunik gertatu zenik. Egia esan, Bizkaiko Foru Aldundiak 2008ko martxoaren 14an egindako txostenean ez zen gatazken planteamendurik egin; aitzitik, horiei buruzko espedienteak aurkeztu ziren.

2. Gatazka onartu ez dadun, garaiz kanpo aurkeztu zela argudiatu zuen ZAAEk, hilabete bateko epea gaindituta aurkeztu baitzen hori, abenduaren 28ko 176012007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordearen Araudiaren (EIABA) 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera. Aurreko ebazpenetan egin moduan, ezin dugu onartezintasuna onartu, eta horretarako aurrekoetan eman genituen arrazoi berdinetan oinarritu gara, 2/2008 ebazpenean, esaterako. Laburbilduz, EIABako epeen sistemaren aplikazioak auresuposatutzat jotzen du organo hau abian zegoela gatazka piztu zen garaian. Izan ere, ez du zentzurik Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera, eztabaidak konpontzea xede duen Arbitraje Batzordearengana jo ahal izateko epea amaitzea organo horrek gatazken berri izateko benetako aukera izan baino lehen. *Pro accione* printzipioak ere ondorio hori babesten du. Aurrekarietan azaldu dugun bezala, aztergai dugun gatazka Arbitraje Batzordea eratu eta haren araudia onartu aurretik aurkeztu egin zen. Horrenbestez, ezin dira araudi horrek ezarritako epeak aplikatu bide honetara jotzeko prozesua prekluitzeko, segurtasun juridikoaren kalterik gabe.

3. Horrez gain, ez dugu onartuko ZAAEk, EIABako 9. artikulua 2.

paragrafoaren babesean, onartezintasuna defendatzeko eman duen bigarren arrazoibidea. Horren arabera, "ez da inola ere aurkeztu ahal izango gatazkarik justizia-epaitegien aldetik jada ebatzita dauden edo oraindik ebazteke dauden gaiei buruz". ZAAEren ustez, gatazkaren zioa konponduta dago dagoeneko, Epaitegi Ekonomiko Nagusiak 2005eko apirilaren 6an hartutako akordioari esker. Azken horrek onartezintzat jo zuen 2002ko urriaren 28an jarritako administrazioarekiko diru-errekamazioa, hain zuzen, 2001 ekitaldiari zegokion Balio Erantsiaren Gaineko Zergaren behin-behineko likidazioaren aurka aurkeztu zena. Dena den, ez dira ahalegin handirik egin behar Epaitegi Ekonomiko-Administratiboak, edozein administrazioetakoak direla ere, justizia auzitegitzat hartu ezin direla ondorioztatzeko, argi baitago administrazio organoak direla horiek. Haatik, aski ezaguna denez, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak epai aurreko arazoak egiteko legitimazioa eman die epaitegi ekonomiko-administratiboari.

4. Gatazka onartzeari buruzko oztopo prozesalak atzera bota ondoren, sakoneko gaia aztertzeari ekin behar zaio, hain zuzen, 2001eko sozietatearen zerga-egoitzaren kokapena zehaztean datzana. ZAAEren arabera, garai hartan sozietatearen zerga-egoitza sozietatearen helbidearen egoitzan bertan kokaturik zegoen, hots, (helbidea) (Bizkaiko udalerrian); Bizkaiko Foru Aldundiaren hitzetan, aldiz, lurralde erkidean zegoen (tokia zehaztu gabe). Nolanahi ere, bi administrazioek onartu zuten 2000. urtean sozietatearen zerga-egoitza bere sozietatearen helbidearen egoitzan kokaturik zegoela. Urteetan zehar, ez da aldatu sozietatearen helbidea; (Bizkaiko udalerrian) egon da beti.

5. Bi dira gatazka konpontzeko interesgarriak zaizkigun kontzeptuak: lehena, eragiketa bolumena, eta bigarrena, zerga-egoitza.

Lehenbiziko kontzeptuari dagokionez, 1981eko Itunaren 28.Hiru artikulua kontuan hartu behar dugu, hain zuzen, honakoa dioena: "Aurreko urtean 500 milioi pezeta baino eragiketa-kopuru handiagoa egin ez duten subjektu pasiboek, eragiketaketan zein bestean eginda ere, zergak Estatuko Administrazioan ordainduko dituzte, zerga-egoitza lurralde erkidean baldin badaukate; eta zerga-egoitza Euskadin baldin badaukate, berriz, dagokion foru aldundian.

Arau horrek ondorioak izan ditzan, eragiketen zenbateko osoa hauxe izango da: subjektu pasiboak gauzatuko dituen enpresa- edo lanbide-jarduera guztietan ondasunak ematerakoan eta zerbitzuak egiterakoan lortu dituen kontraprestazioen zenbatekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta baliokidetasun-errekargua alde batera utzita, halakorik badago.

Jarduera hasi berria bada, 500 milioi pezetako kopurua zenbatzeko egutegiko lehenengo urtean egindako eragiketen bolumena hartuko da kontuan.

Jardueran emandako lehenengo urtea ez baldin bada egutegiko urtebete, kopuru hori zenbatzeko, jardueraren hasieratik egindako eragiketarik abiatuko da urte osokoa kalkulatzeko”.

Espediente osoaren berri izan ostean, Foru Aldundiak ZAAEren tesiarekin bat egin zuen 2008ko urriaren 19an aurkeztutako alegazio idazkian. Horren arabera, Ekonomia Itunaren 28.Hiru artikuluan ezarritakoak ondorioak izan ditzan, ez da kontuan hartu behar abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 121. artikuluan xedaturikoa, Balio Erantsiaren Gaineko Zergari buruzkoa, aipatutako zerga arautzeko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauan (Bizkaia) ere jaso zena. Hori guztia kontuan hartuta, ez dugu zertan gai horren inguruan argudiorik eman beharrik. Gauza jakina da aipatutako artikulua, lehenebiziko atalean, *in fine*, ondokoa diola: “Enpresa edo lanbide bateko ondare osoa edo zati bat eskualdatzen denean, subjektu pasiboak konputatu beharreko eragiketen bolumena egutegiko aurreko urtean egindako eragiketei epealdi berean eskualdatzaileak egin dituen eragiketarik eskualdatutako ondareari dagokion zatia gehituz sortzen den kopurua da”.

Egia esan, eragiketen bolumenei buruzko auzia ez da inon agertu, ezta foru administrazioak aurkeztutako gatazkan ere. Aitzitik, sozietateak egindako argibide eskaera dela medio sortu da hori, baina ebazpenaren hasieran azaldu den bezala, Arbitraje Batzordeak ez du jaso argibide horren inguruan eman beharreko erantzunak sortu dituen desadostasunen ondoriozko gatazkarik. Horrenbestez, aztergai dugun gatazkan ezin dira sartu horren gainean emandako arrazoiak. Lehen esan bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du horrelakorik egin; bai, ordea, ZAAEk, beharrezkoa ez zen arren. Ondorioz, aurretik ere aipatu moduan, lehenak egindako

azken idazkian (2008ko urriaren 19an), ontzat eman zuen bigarrenak jarraitutako irizpidea.

Kontuan hartu behar da aurreko urtean eragiketen bolumen osoa bostehun milioi pezetakoa baino handiagoa izan ez bada (kasu honetan bezala, guztira 25.200.000 pezetakoa izan baitzen), subjektu pasiboak bere zerga-egoitza kokaturik dagoen administrazioan ordaindu beharko duela 2001. ekitaldiari dagokiona, osorik, zerga-egoitzan inolako eragiketarik egin ez bada ere. Laburbilduz, subjektu pasiboek bostehun milioiko muga gainditzen ez dutenean, zerga-egoitza izango da kontuan hartuko den irizpidea.

6. Gogoan izan, 28.Hiru artikuluarik jarraiki, aztertzen den eragiketen bolumena aurreko urtekoa izan arren (2000), zerga-egoitzaren kokalekua uneko urteari dagokiola (2001). Bada, zerga-egoitzari dagokionez, esan beharra dago kontuan hartu behar den araua 36.Lau artikulua dela, Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako Ekonomia Itunarena, maiatzaren 13ko 1211981 Legearen bitartez onetsi zena; hauxe dio: “Ekonomia Itunean jasotako ondorioetarako, pertsona juridikoen zerga-egoitza Euskal Autonomia egongo da, betiere aipatutako lurraldean beren sozietatearen helbidea baldin badago, eta bertan negozioen administrazio-kudeaketa eta zuzendaritza gune nagusia kokaturik badago. Bestela, kudeaketa edo zuzendaritza egiten den lekua hartuko da zerga-egoitzatzat”.

Nabarmendu behar da arau hori dela kasu honetan aplikatu behar dena, ez, ordea, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Ekonomia Itunaren 43, Lau artikulua. Izan ere, azken hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jarri zen arren, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera izan zituen eraginak. Hori azpimarratzea garrantzitsua da, jarraian agertzen direnen zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik daudela ezartzen baitu azken artikulua horrek: [...]

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren mendean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilita bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan”. Kontuan izan

garai hartan indarrean zegoen Itunak aurreikusi ez zuen soberazko irizpidea ezarri dela (ibilgetuaren baliorik handiena dagoen lekua). Beraz, aztergai dugun gatazka konpontzeko ezin dira aintzat hartu Bizkaiko Foru Aldundiak horren inguruan egindako hausnarketak, soberazko irizpide hori ez baitzen 2001. urtean aplikagarria.

7. Pertsona juridikoen zerga-egoitza zehazteko garaian, berdin dio non dagoen bere sozietatearen helbidea. Aitzitik, administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gune nagusiaren kokapena da hori erabakitzen duen irizpidea. Dena dela, egoitza zehaztea ez da eginkizun erraza, mugak definitu gabe baitaude. Bada, zerga-egoitzaren kokalekua egiaztatu ahal izateko, aipatutako egoera toki zehatz batean ematen dela frogatu beharko da. Ez da tasatutako proba, areago, lege mailan ez dira horren inguruko irizpiderik ezarri, ezta adierazpen mailan ere. (Erakundeak) zerga-egoitza duen tokian ordaindu behar du dagokion zerga (sozietatearen helbidean bertan egon daiteke edo ez), eta hori finkatzea da, hain zuzen, guri konpontzea dagokiguna. Horretarako, egiazko kontua dela kontuan hartuta, finean, kudeaketa-administrazio eta negozioen zuzendaritza gune nagusiarekin loturik baitago, espedientean agertzen diren probetako elementu ezberdinak aztertu behar ditugu.

Agerikoa denez, sozietate baten zerga-egoitza zehazteko garaian, benetan erabakigarria da edo izan daiteke zenbait gertaera batera ematea, besteak beste, toki berean egotea erakundearen kontratazio orokorra egiaztatzen duen bulegoa edo lokala –gauzatutako jardueren arabera, beste hainbat tokitan gauzatu daitekeenari kalterik egin gabe–, kontularitza orokorra iraunkorra eramaten duen bulegoa, eta erakundearen administratzaile edo kudeatzaile nahikoak aurkitzen diren zerga-egoitza, gizarte eragiketak behar bezala egiaztatu eta aztertu ahal izateko. Jakina, hori frogatzeko baliagarritasuna, aipatutako hiru elementuen aldiberekotasuna txikiagoa edo handiagoaren arabera egongo da.

Nolanahi ere, batzuetan, amaierako balorazioa beste elementu batzuen menpe egon daiteke, eta horiek lehenbiziko balorazioa finkatu edo ahuldu ditzakete.

Kasu honetan, goian azaldu direnak ez dira Estatuko Administrazioaren tesia

babesteko kontuan hartu ditugun elementu bakarrak, beste zenbait gertaerez ere baliatu gara, esaterako: lehena, sozietatearen akzioen araberrako eraketa, eta kide den Taldearen eginkizunen banaketa; horien bitartez, ondorioztatu da (Taldearen) Zuzendaritza Batzordeak hartzen dituela oinarritzko estrategia erabakiak; bigarrena, sozietateak (2 erakundearekin) eta (3 erakundearekin) zerbitzuak emateko sinatu dituen kontratuak. Sozietatea bera bezala, bi erakunde horiek ere Taldearen kide dira. Egia esan, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du frogatu administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza gune nagusia kokatuta dagoen tokia aldatu denik; (Bizkaiko udalerrian) dago oraindik, hain zuzen, (Taldea) kokatuta dagoen lekuan. Bertan, arestian esandako bi enpresak daude ere bai. Gainera, leku horretan azpiegitura egokiak daude taldearen jarduerak zuzentzeko eta kudeaketa-administrazioa gauzatzeko, sozietateak berak egiten dituenak barne.

Benetan garrantzitsua da, areago, aztergai dugun gatazkaren gakoa da sozietateak berak aitortu izana sozietatearen Taldearen barruan dauden bi enpresa azpikontratatu dituela administrazio-kudeaketako zenbait jarduera egin ahal izateko. Kontratu bakoitza aztertu ondoren, ziurtatu daiteke aipatutako erakundeak (Bizkaiko udalerrian) arduratzen direla sozietatearen kudeaketaz. Hain zuzen, sozietatearen presidentek eta kontseilari delegatuak (2 erakundearekin) sinatutako kontratuak, alderdiek kontrakorik adierazi ezean iraupen mugagabea duenak, ondoko zerbitzuak eskaintzea du xede (Taldearen) politika orokorrak zehazteko eta garatzeko: merkatuko azterketak egitea, antolamenduari zuzendutako proiektu orokorren bideragarritasun planak diseinatzea eta gauzatzea, proiektu berrien inguruko bideragarritasun azterlanak egitea, plan estrategikoak definitzea, kudeaketa ereduak eta kudeaketa planen segimendu ereduak diseinatzea, finantza politikak definitzea, kontsumo politikak definitzea, Taldearen eginkizun nagusiak diseinatzea eta finkatzea, hirugarrenetikiko harremanak eta sor daitezkeen enpresa aliantzak sustatzea, komunikazio eta erakunde arteko harreman politikak ezartzea, Taldearen bilakaeran eragina izan ditzaketen erabaki nagusien segimendua egitea eta horiek kontrolatzea, Taldearen kultura, baloreak, ideiak, eta kudeaketa praktika sustatzea, politika korporatiboa kudeatzea, markeri eta jabetza intelektualeko gainerako eskubideei dagokienez, eta edozein organismoren aurrean, publiko zein pribatu, Taldearen erakunde ordezkartzez arduratzea.

Bestetik, alderdiek kontrakorik adierazi ezean iraupen mugagabea duen (3 erakundearekin) sinatutako kontratuaren arabera, ondoko eginkizunak betetzeko konpromisoa dauka azkenak: laguntza teknologikoa ematea, beharrezkoa den aholkularitza zerbitzua eta laguntza teknikoa eskaintzea, zerbitzu informatikoekin lotutako gaiak kudeatzeko, hiri baliabideak kudeatzeko, ekonomia eta finantzako administrazioa, marketina eta aholkularitza juridikoa bideratzeko. Era berean, (3 erakundeak) kontratuan ageri diren zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren langileak, materialak eta instalazioak ipintzeko hitza hartu du, behar diren ekipamendu informatikoak eta azpiegiturak eskaintzeaz gainera. (3 erakundeak) esleitzen ditu eskatutako ustiapen zerbitzuetarako beharrezkoak diren giza baliabideak.

Jakina, ezin da ukatu merkataritza gunee bakoitzean eginkizun zehatzak gauzatzen ez direnik; nolana ere, kasu honetan, ez dira garrantzitsuenak. Espedientean bildu den trebakuntzarako gidaliburutik ondoriozta daitekeenez, merkataritza guneean, Taldearen zuzendaritzak eta foru aldundian bizi diren sozietatearen administratzaileek emandako aginduak bete daitezten oinarritzko eginkizunak garatzen dira soilik. Horretarako, eskumen desberdinak eman dira notarioaren aurrean. Gidaliburuan, lanpostu desberdinen zereginak agertzen dira (elikagaiak, freskoak, elektro, bazarra, ehunak, kutzak, mantentze-lana, administrazioa, biltegia, gasolindegia eta giza baliabideak).

Bere ahalmenari jarraiki, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

2001eko ekitaldian, (Erakundearen) zerga-egoitza bere sozietatearen helbidean zegoela kokaturik, hain zuzen, (helbidea), (Udalerrian) (Bizkaia).